

Erosketa esperientzia eraldatzen duen berrikuntza teknologikoa
EROSKI-REN ONLINE SUPERMERTATUKO LAGUNTZAILE
BIRTUALA SEI HAUTATUETAKO BAT IZAN DA URTEKO AA
SORTZAILEAREN ALORREKO BERRIKUNTZETAN
INNOBASQUEREN 'GLOBAL INNOVATION DAY 2024' EGUNEAN

- **Laguntzaileak online supermerkatuaren konbertsio tasa handitu du**
- **Erabiltzaileek positiboki baloratu dute, eta abiadura, zehaztasuna eta erabiltzeko erraztasuna nabarmendu dizkiote**

Elorrio, 2024ko azaroaren 5a.- [EROSKI](#) sendo ari da egiten aurrera bere berrikuntza planetan teknologia berriak baliatuz. 2023an, Espainiako sektoreko lehen enpresa izan zen bere [online supermerkatuan](#) laguntzaile bat abian jartzen, AA sortzaile batean oinarrituta: ekimen hori urteko AA sortzaileen alorreko berrikuntzako sei hautatuetao bat dela aitortu berri dute [Innobasquek](#) antolatu duen 13. [Global Innovation Day 2024](#) egunean. Teknologia aurrerapen esanguratsua da, bezeroei erantzuteko eta erosketa prozesua optimizatzeko orduan.

Laguntzaile tradizionalak AAn eta hizkuntza naturalaren prozesamenduan oinarritzen dira, eta, horiek ez bezala, AA sortzaileak modua ematen du erantzunak hobeto ulertu eta erantzun zehatzagoak emateko, datu bolumen handiekin eta algoritmoekin entrenatzen baita eta ikaskuntza automatikorako teknikak baitakartza, hizkuntza aztertu eta hobeto ulertzeko.

Bezeroaren esperientzian inpaktua duen berrikuntza

Konsumitzaile digitala gautarra da, gehienbat orduan izaten baitira online transakzio komertzialak. Testuinguru horrek bultzatu du OpenAIk garatutako AA sortzailean oinarritzen den laguntzaile berritzailea, erabiltzaileen kontsultei erantzuteko eta erosketa esperientzia hobetzeko.

Laguntzaile birtualak denbora errealean erantzuten ditu erosketa prozesuko kontsulta orokorrak, baita produktuen gaineko eskaintzen, bilaketen eta errezeta gomendioen gainekoak ere.

EROSKIk hiru premisa txertatu ditu sistema berritzaile horretan. Alde batetik, AAren gobernanta etiko zorrotza; horrela, bermatuta dago datuen eta algoritmoen erabileran gardentasuna izango dela eta erantzunak emateko orduan ager

EROSKI

Komunikazio Korporatiboa
PATRICIA MARTÍN SANCHIDRIÁN

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

daitezkeen okerkeriak zuzenduko direla, nola eta auditoretzen bitartez eta testuingurua zedarrituz. Beste alde batetik, euskarazko solasaldia dakar; izan ere, EROSKI online da online denda bakarra eduki guztiak hizkuntza horretan dituena. Eta, beste alde batetik, produktu osasungarrien gaineko gomendioak egiten ditu.

Emaitza positiboak eta balio erantsia

Global Innovation Day 2024 eguneko aurkezpenean, EROSKIren Online Negozioko zuzendariak, Mari Mar Escrigek, hauxe nabarmendu du: "EROSKIk beti egin du berrikuntzaren alde, etengabe hobetzeko motortzat duenez gero" eta balioan jarri ditu "AA Sortzailearen onurak bai erosketa esperientzia hobetzeko, bai konbertsio tasan eragiteko eta bai bezeroa pozik lagatzeko".

EROSKIren laguntzaile birtuala darabiltenen %70ek baino gehiagok bikaintzat jo dute esperientzia, eta abiadura, zehaztasuna eta erabiltzeko erraztasuna nabarmendu dituzte bertute nagusien artean.

EROSKIk jarraitzen du teknologia honen potentziala esploratzen, beste plataforma eta kanal batzuetan integra litekeelako, hala nola Whatsappen edo telefono zerbitzuan; horrela, balio erantsia eman ahalko litzaioke erosketa prozesuko zenbait etapatan.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboa
PATRICIA MARTÍN SANCHIDRIÁN

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)